



## **KOMUNIKAZIO-JARDUERA:**

### **Irudi bidezko telefono matxuratua**

Kontuan izan behar dugu informazio edo mezu zehatz bat irudi bidez komunikatzea zaila izan daitekeela ikasleentzat, are eta zailagoa halako ariketarik inoiz burutu ez badute. Hori kontuan izanik, jarduera honetan ikasleek irudi bidez kontzeptu edo ideiak komunikatzeko erronka modu arin eta dibertigarrian gainditu beharko dute.

Horretarako, talde txikitan banatuko dira ikasleak: 5-6 pertsonako taldeak egokiak izan daitezke. Lehenik, ikasle bakoitzari parte hartzaile kopurua beste txarteltxo emango zaizkio (5 pertsonak parte hartuz gero, ikasle bakoitzak 5 txarteltxo izango ditu).

Behin dena prest izanda, ikasleek objektu edo ekintza bat idatzi beharko dute 1. txarteltxoan.

Behin testua idatzita, ikasleek eskuineko ikaskideari txarteltxo multzo osoa pasako dio, esaldia edo hitza multzoaren gainaldean dagoelarik.

Paper multzoa jasotzean, bertan idatzia irakurri eta lehen txarteltxo hori multzoaren atzealdera pasa beharko dute ikasleek. Ondoren, aurrealdean geratu den txarteltxoan 1. txartelean irakurria marratzu beharko dute.

Behin marrazkia eginda, txartel multzoa eskuineko ikaskideari pasako diote. Oraingoan, ikasleek ordea, testua irakurri beharrea irudia interpretatu beharko dute eta, ondoren, irudia txartel multzoaren atzealdera pasa. 3. txarteltxoan ikasleak 2. txarteltxoan ikusitako irudia hitzez deskribatu beharko dute. Behin idatzita, berriz eskuinera pasako dute txartel multzoa eta honela jarraituko dute harik eta txartel multzoa hasierako ikasleengana bueltatzen den arte.

Jarduera amaitzean, ikasle taldeak marrazkien eboluzioa ikusiko dute.



## GELAKO MATERIALAK

Jarduera hau egiteko beharrezko materiala eranskinetan aurkituko duzu.

### KONTUAN IZAN

- **HELBURUA**

Jardueraren helburua ikasleek marrazki bidez kontzeptu edo ideiak komunikatzeko gaitasuna lantzea da, beldur edo presiorik gabe.

- **IKASLEEI ESKATZEN ZAIENA**

Ikasleei eskatzen zaien bakarra jolas honetan parte hartu eta ideia ezberdinak irudi bidez komunikatzeko gaitasuna lantzeko ahalegina egitea da.

